

## ERMUKO triatloi taldea

2010ean euren 20. urteurrena ospatuko dute. Ordurako Ermuan Euskal Duatloi Zirkuitu froga bat antolatzeko lanetan dihardute. Hilean behin elkartzen dira eta asteburuetan elkarrekin entrenatzeko aprobeztatzen dute.



### - Zein urtetan sortu zen taldea?

Taldea 1990. urtean sortu zen, beraz datorren urtean taldearen 20. urteurrena izango dugu.

### -Zeintzuk dira zuen helburuak?

Gure helburu nagusia kirolaz gozatzea da eta ahal dugun neurrian kirol praktika sustatzea, batik bat Duatloia eta Triatloia. Horretarako 20. urteurrenari etekina atera nahian, hurrengo urterako Ermuan Euskal Duatloi Zirkuituko froga bat antolatzeko lanetan gabil-tza. Honela herriari kirol hau gertutik ikusteko eta gozatzeko aukera emanez.

### -Zein maiztasunarekin biltzen zarete eta non?

Taldeari dagokionez, hilean behin biltzen gara (orain arte edozein taber-

natan). Mahai gainean lizentziak, lasterketak, entrenamenduak, eta horrelakoak izaten ditugu. Honetaz aparte, asteburuetan elkarrekin entrenatzeko denbora gehiago daukagula aprobeztatuz, larunbat eta domeka goizetan bizikletaz edo taldean korrika egiteko gelditzen gara, zirkuituko lasterketaren bat ez badaukagu.

### - Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Duatloiak oinezko lasterketa eta bizikleta lasterketa biltzen dituela eta triatloiak igeria ere barne duela kontuan izanik, urtean zehar kirol froga ezberdinetan hartzen dugu parte: Herri-krosak, mendi martxak, Maratoi eta 1/2 Maratoiak, bizikleta martxak eta

itsasaldiak. Honetaz aparte eta helburu nagusi bezala, otsailtik-apirilera Euskal Duatloi zirkuituko frogetan hartzen dugu parte eta apiriletik-irailera Euskal Triatloi zirkuituko frogetan.

### -Zuekin harremanetan jartzeko?

mail-a: ermukotriatloitaldea@hotmail.com. blog-a: www.ermukotriatloitaldea.blogspot.com.

### -Zerbait gehiago komentatzeko...

Ermuko Triatloi Taldea Duatloian, Triatloian edota urtean zehar egiten ditugun beste frogetan talde bezala parte hartzeko nahi duen guztiarentzat dago irekia. "Kirola onuragarri dela diote, orduan triatloia 3 aldiz onuragarria izango ote?"

Olatz G

**SAN ANTONIO** OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaiaeta, 40  
Zubiaurre, 12

Tel. 17 00 63  
Tel. 17 38 40

**AIZ**

**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**ZABAL**

**ERMUA**

**GARAGARDOGEGIA** ZEHEN CERYECERIA

**ZYTİK**

OTARTEKO eta  
IMPORTAZIOZKO  
GARAGARDOtan  
berezitasuna

943 17 39 78